# ESTATUTUAK

## ELKARTEAREN DMD-DHE EUSKADI

DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA

# ESTATUTOS

## ASOCIACIÓN DMD-DHE EUSKADI

DERECHO A MORIR DIGNAMENTE

dmd dhe
DERECHO A MORIR DIGNAMENTE
DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA
EUSKADI

# ELKARTEAREN ESTATUTUAK

## LEHEN KAPITULUA

### IZENDAPENA

#### 1. artikulua

Irabazi-asmorik gabeko elkartea da AS/G/09652/2002 erregistro-zenbakia duen Euskadiko ASOCIACIÓN DMD-DHE DERECHO A MORIR DIGNAMENTE - DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA izenekoa, zein 2001eko urriaren 27an eratu baitzen, eta 2002ko otsailaren 19an inskribatu. Elkartearen Estatuak aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkarteko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera eta Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9 eta 10.13 artikuluetan azaldutakoarekin bat etorriz.

Aipatutako Elkarteak honako araubidea izango du: elkarteei buruzko lege aipatu berriak, estatutu hauek berak (legediaren kontrakoak ez badira), gobernu-organoek balioz hartutako erabakiak (legediaren eta/edo estatutuen aurkakoak ez badira), eta Eusko Jaurlaritzak onartzen dituen arau-xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira, ez besterik).

### ELKARTEAREN HELBURUAK

#### 2. artikulua

Hauek dira elkartearen helburuak:

a) Norbere gorputzaz eta bizitzaz askatasunez erabakitzeko eta hura noiz eta nola amaitu hautatzeko pertsona ororen eskubidea defendatzea. Duintasunez hiltzeko eskubidea.

b) Herritarren eskubide hauek defendatzea, bizitzaren amaieran:

l. Informazio klinikoa izatekoa.

2. Eskuragarri dauden aukera klinikoen artean askatasunez erabakitzekoa.

3. Intimitatea izatekoa.

4. Tratamenduari uko egitekoa, eta gaixoak askatasunez eta bere nahiaz hartutako erabakiak errespetatuak izatekoa.

S. Aurretiazko Borondateen Dokumentuan bere nahiak aldez aurretik adieraztekoa.

6. Sufrimendua arintzekoa, norberaren balio eta sinesmenak errespetatuko dituen kalitatezko medikuntza aringarriaren bitartez.

7. Tratu ankerrak edo degradagarriak saihestea, sedazio aringarriaren erabilera eginez (lotan hiltzea), bere borondatea hori izaten denean.

c) Eutanasiaren eta medikuek lagundutako suizidioaren legeztapena defendatzea, gaixotasun sendaezinak edo larriki ezgaitzen dutenak pairatzen dituzten eta jasanezina gertatzen zaien sufrimendu batetik askatu nahi duten pertsonentzat.

d) Bazkideei bizitzaren amaieran laguntzea.

Jarduera hauek garatuko ditu elkarteak helburuak lortzeko asmoz, aurretiaz legeak ezarritako baldintzak bete ondoren:

a) DMD-DHE elkartearen helburuak gizartean ezagutaraztea, komunikabideen eta webgunearen bidez, hartara gizarte-eztabaida zabal eta anitza sustatuz, egoeraren araberako beldur edota mugarik gabea.

b) Elkarlanean aritzea beste erakunde, plataforma eta gizatalde nazional zein nazioarteko batzuekin.

c) Jarduerak eta bazkide berriak erakartzeko ekintzak sustatzea, jardunaldien, mintegien, eztabaida-foroen, informazio-buletinen eta Internet bitartez.

d) Bizitzaren amaieran bazkideei arta pertsonalizatua ematea: bere eskubideei buruzko lege-aholkularitza, sorospen-baliabideak (zaintza aringarriak), Aurretiazko Borondateen Dokumentua, etab.

e) Bestelako edozein jarduera burutzea, indarrean dagoen lege-esparruaren baitan elkartearen helburuak lortzera bideratuta dagoena.

Aurreko atalean deskribatutako jarduerez gain, eta bere helburuak betetzeko asmoz, elkarteak honako hauek ere egin ahalko ditu:

- Nolanahiko jarduera ekonomikoak garatu, elkartearen helburuak betetzera edo helburuak lortzeko baliabideak biltzera bideratuak badira.
- Mota orotako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko egintzak burutu, betiere legeekin eta elkartearen estatutuekin bat datozela.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako taldeen lanean oinarrituko da elkartea, bere helburuak lortzeko.

## EGOITZA SOZIALA

### 3. artikulua

Elkarte honen helbide nagusia Bilbon (Bizkaia) egongo da.

**DMD/DHE EUSKADI**
**Araba kalea, 6 (erdisotoa)**
**48014 BILBO**

Elkartearen presidentzia non, egoitza edo helbide soziala hantxe izango da.

Elkarteak beste lokal batzuk izan ahalko ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, baldin eta Ezohiko Batzar Nagusiak hala adosten badu. Bada elkartearen egoitza eta gainerako lokalak udalerri barruan lekuz aldatzerik, Zuzendaritza Batzordeak adostuz gero; halakoetan, Elkarteen Erregistroari helbide berria jakinaraziko dio Zuzendaritza Batzordeak. Gainerako kasuetan, derrigorrezkoa izango da estatutuak aldatzea.

## LURRALDE EREMUA

### 4. artikulua

Elkarte honek nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatuko ditu bere zereginak.

## IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

### 5. artikulua

DMD-DHE Derecho a Morir Dignamente - Duintasunez Hiltzeko Eskubidea izeneko elkartea iraunkor izateko eratu da, eta soilik Ezohiko Batzar Nagusiaren erabaki bidez desegingo da, VI. Kapituluan xedatutakoaren arabera, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoak izango dira, eta erabat errespetatuko da aniztasuna. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen edozein alderdi urratzen duten itun, estatutu-xedapen eta erabakiak oro.

# BIGARREN KAPITULUA

## GOBERNU- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

### 6. artikulua

Kide antzeko organo hauek arduratuko dira elkartea gobernatu eta administratzeaz:

- Bazkideen Batzar Nagusia, organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea, kide anitzeko zuzendaritza eta betearazpen iraunkorreko organoa..

## BATZAR NAGUSIA

### 7. artikulua

Batzar Nagusia bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Batzar Nagusiaren ahalmenak dira:

a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.

b) Urteko kuoten eta hurrengo ekitaldiko aurrekontuak aztertu eta onartzea.

c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.

d) Estatutuak aldatzea.

e) Elkartea desegitea.

f) Presidente jaun-andrea, idazkari jaun-andrea, diruzain jaun-andrea eta, baldin badaude, Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideak hautatzea eta kargugabetzea, bai eta horiek ikuskatu eta kontrolatzea.

g) Beste elkarte batzuekin eginiko federazio eta konfederazioa osatzeko egintzak, edo horietako batzuk uztea.

h) Ontzat ematea ondasun higiezinen xedapena edo besterentzea.

i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.

j) Ohiko edo ezohiko kuotak ezartzea, eskumen hau Batzar Nagusiak gobernu-organoari eskuordetu ahal izango badio ere, berariazko hitzarmenaren bidez.

k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakiahartzea.

l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

## 8. artikulua

Batzar Nagusiak ohiko bilkurak eta ezohiko bilkurak egingo ditu.

## 9. artikulua

Batzar Nagusiak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura: lehenengo hiruhilekoan izango da, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

## 10. artikulua

Batzar Nagusia Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran,, bere ekimenez, edo bazkideen laurdenak hala eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolanahi ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

a) Estatutuak aldatzeko.

b) Elkartea desegiteko.

## 11. artikulua

Batzar Nagusien deialdiak, ohikoak nahiz ezohikoak, idatziz egingo dira, bilkuraren tokia, data eta ordua adierazita, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten den egunaren eta bilkuraren lehenengo deialdienaren artean gutxienez 15 eguneko tartea ezarri beharko da, Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua adieraz daitezke; dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi behar da.

Batzar Nagusiak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balioz eratuta gertuko dira bazkideen arteko erdia gehi bat bertaratzen direnean –zuzenean edo ordezkari bidez–, eta bigarren deialdian, bertaratutako bazkideen kopurua edozein izanda ere.

Iragarkian bigarren deialdiaren data aurreikusi izan ez balitz, hura bilkura baino bost egun lehenago egin beharko da, gutxienez.

### 12. artikulua

Batzar Nagusiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuen baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkatuen gehiengo kualifikatua beharko da (baiezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago izatea) erabaki hauek hartzeko:

a) Elkartea desegitea.

b) Estatutuak aldatzea.

e) Ondasunen erabili edo besterentzea.

d) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

### 13. artikulua

Bazkideek beste edozein bazkideren gain utzi dezakete beraien ordezkaritza Batzar Orokorretan parte hartzeko.. Ordezkaritza hori idatziz egin beharko da, eta Batzordeko idazkariak izan beharko du bilkura hasteko unean. Elkartearen egoitza dagoen udalerrian bizi ez diren bazkideek postaz igorri ahalko dute ordezkaritza egiaztatzen duen agiria.

## ZUZENDARITZA BATZORDEA

### 14. artikulua

Zuzendaritza Batzordea elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzen dituen ordezkaritza organoa da, Batzar Nagusiaren xedapenak eta jarraibideak jarraiki. Elkartekideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

Honako hauek osatuko dute Zuzendaritza Batzordea: presidentea, presidenteordea, idazkaria, diruzaina eta batzordekideak, gutxienez bat eta gehienez lau lurralde historiko bakoitzeko.

Edonola ere bateraezinak izango dira presidente eta presidenteorde karguak batetik eta idazkari eta diruzain karguak bestetik.

Gutxienez urtean bi aldiz bildu beharko dira.

Zuzendaritza Batzordea Euskadiko hiru lurralde historikoetako pertsonekin osatzeko ahalegina egingo da.

### 15. artikulua

Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara hiru aldiz jarraian, edo, tarteka lau aldiz agertzen

ez bada, utzi egin beharko du dagokion kargua, hutsegite horiek arrazoitu ezean.

## 16. artikulua

Batzar Nagusiak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak, lau urterako izango dira karguan, –Batzar Nagusiak berariaz baliogabetu ezean–, eta berriro hautatu ahal izango dira.

## 17. artikulua

Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, baldintza hauek bete beharko dira nahitaez:

a) Adinez nagusia izatea, eskubide zibilen jabe izatea oso-osoan, eta indarrean dagoen legedian ezarritako bateraezintasun-arrazorik ez izatea.

b) Estatutuetan aurreikusita dagoen moduan esleitua izatea.

e) Elkarteko bazkide izatea, gutxienez laurogeita hamar eguneko antzinatasunarekin.

## 18. artikulua

Zuzendaritza Batzordekide kargua Batzar Nagusiak norbait izendatu, eta norbait horrek onartu eta karguaz jabetzerakoan hartuko da. Ez da derrigorrezko jotzean kargua onartu beharra.

Karguak soldatarik gabeak izango dira. Dena den, Batzar Nagusiak dietak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.

## 19. artikulua

Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

a) Agintaldia amaitzen denean.

b) Dimititzen badute.

c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargurako ezintasun-arrazoiak badituzte.

d) Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargugabetzea erabakitzen duenean.

e) Hiltzen badira.

Kargugabetzearen arrazoia a) atalean aurreikusitakoa baldin bada, Zuzendaritza Batzordeko kideak jarduneko egoeran jarraitu beharko dute hurrengo lehen Batzar Nagusia egin arte, eta Batzar horrek aukeratuko ditu kargudun berriak.

Kargugabetzearen arrazoia b), c), d) edo e) ataletan aurreikusitakoren bat bada, Zuzendaritza Batzordeak berak izendatuko du norbait behin-behingoz, huts dagoen kargua betetzeko; gero, Batzar Nagusiaren erabakiko du izendapena onetsi ala ezestea. Ezesten badu, berak egingo du beharrezko kargu izendapena.

Organo honen osaeran gertatzen den aldaketa ororen berri jakinaraziko zaio Elkarteen Erregistroari.

### 20. artikulua
Hauek dira Zuzendaritza Batzordearen zereginak:

a) Elkartearen ohiko kudeaketa zuzentzea, Batzar Nagusiaren jarraibideen arabera, eta haren kontrolpean.

b) Elkarteak garatuko dituen jarduerak programatzea.

e) Gastuen eta diru-sarreren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Nagusiaren aurrean aurkeztea, hark onartu ditzan.

d) Batzar Nagusiaren bileren gai-zerrenda prestatzea, eta Batzar Nagusiaren ohiko eta ezohiko bilkuren deialdiak erabakitzea.

e) Bazkideek egiten dituzten proposamenak edo iradokizunak aztertzea, eta dagozkien neurriak hartzea.

f) Estatutu hauetan jasotako arauak interpretatzea eta hutsuneak betetzea, betiere elkarteen alorrean indarrean dagoen lege-araudia jarraiki, eta hurrengo lehen Batzar Nagusira eramatea, hark onartu ditzan.

g) Berariaz Batzar Nagusiari esleitu gabeko beste edozein.

### 21. artikulua
Zuzendaritza Batzordeak, presidenteak erabakitako —bere kabuz nahiz batzordekideren batek eskatuta– bakoitzean egingo ditu bilkurak.

Presidenteak zuzenduko du bilera, eta hura ez dagoenean, presidenteordeak, halakorik balego. Biak falta balira, batzordekokide zaharrena.

Batzordearen hartutako erabakiak baliozkoak izateko, bertaratutakoen gehiengoak aldeko botoa eman behar du, horretarako batzordekideen erdiak egon behar duelarik. Berdinketarik egonez gero, presidentearen kalitateko botoak erabakiko du.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek, gero, dagokien liburuan transkribatuko dira.

## PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

**PRESIDENTEA**

### 22. artikulua
Presidenteak elkartearen legezko ordezkaritza hartzen du bere gain, eta Zuzendaritza Batzordeak zein Batzar Nagusiak hartutako erabakiak betearazten ditu, bien presidente izango delarik.

### 23. artikulua
Presidenteari dagozkio Zuzendaritza Batzordeari edo Batzar nagusiari propio gorde gabeko ahalmen

guztiak, eta batez ere honako hauek:

a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak egiten dituzten bilera-deialdiak egitea, eta bataren zein bestearen eztabaidak zuzentzea.

b) Zuzendaritza Batzordeari elkartearen jarduera-plana proposatzea, elkartearen eginbeharrekoak bultzatu eta bideratzea.

e) Behar bezala erabakitako ordainketak agintzea.

d) Sortu daitezkeen premiazko auziak konpontzea, eta Zuzendaritza Batzordeak hurrengo lehen bilkuran horien berri ematea.

e) Batzar Nagusiak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, non ez diren haren eskumen esklusibokoak.

**PRESIDENTEORDEA**

## 24. artikulua

Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio, bai eta hura ordeztu ere, behin-behineko ezintasun egoeran gertatzen denean. Era berean, berari dagozkio presidentek berariaz beragan eskuordetzen dituen eskumen guztiak.

**IDAZKARIA**

Idazkariari dagokio elkartean sartzeko eskabideak jaso eta kudeatzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua kudeatzea, eta Akta Liburua zaindu eta erredaktatzeaz arduratzea.

Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete daitezen arduratuko da, erakundearen dokumentazio ofiziala zainduko du, gizarte liburuen eta artxibo sozialen edukia egiaztatuko du, eta eskumenak dituen agintariari Zuzendaritza Batzordeen hautaketari eta helbide sozialean gerta daitezkeen aldaketei buruzko jakinarazpenak helaraziko dizkio.

**DIRUZAINA**

Diruzainari dagokio eginiko diru-sarrera eta ordainketen berri ematea, diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua prestatzea eta aurreko urteko kontuen egoera jakinaraztea. Guzti horiek Zuzendaritza Batzordearen aurrean aurkeztu beharko ditu, eta honek Batzar Nagusiaren aurrean, azken honek onartu ditzan.

# HIRUGARREN KAPITULUA

## BAZKIDEAK: ONARTZEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA, ETA BAZKIDE-MOTAK

### 27. artikulua
Elkarteko bazkide izan daitezke hala nahi duten eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

Adinez nagusia edo adingabe emantzipatua izatea, betiere eskubidea erabiltzeko inolako legezko baldintzarik ez badute eta beren gaitasuna ebazpen judizial irmoren batek mugatuta ez.

### 28. artikulua
Elkarteko bazkide izan nahi dutenek presidenteari aurkeztu beharko diote eskabidea idatzia. Presidenteak Zuzendaritza Batzordeari jakinaraziko dio, eta honek erabakiko du eskatzailea bazkide gisa onartu edo ez. Alabaina, gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Batzar Nagusiaren aurrean.

Ez da onartuko bazkide izaera sarrera-eskubideak ordaindu arte, Batzar Nagusiak ezarritako kopuru eta moduan.

Zuzendaritza Batzordearen erabakiz, elkarteak, ohorezko bazkide izendatu ahal izango ditu bazkide izateko baldintza guztiak bete arren elkartearen helburuak betetzeko bertaratu ezin diren pertsonak. Bazkide horiek ohorezkoak dira soilik, eta beraz, ez dira legezko bazkide, ez dute elkarteko gobernu- eta administrazio-organoetan parte hartzeko eskubiderik, ez eta inongo betebeharrik ere.
da clase de obligaciones.

## BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

### 29. artikulua
Eskubide hauek dituzte bazkide guztiek:

1) Elkarteei buruzko Legearen eta estatutuen aurkako erabaki eta jarduerak inpugnatzekoa, berrogei egun naturaleko epean, eskatzaileak inpugnatutako hitzarmenaren edukia ezagutu edo ezagutzeko aukera izan duen egunetik kontatzen hasita.

2) Elkartearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaerari, kontuen egoerari eta jardueren garapenari buruzko informazioa jasotzekoa.

3) Edozein unetan elkarteko gainerako bazkideen nortasuna, diru-sarrera eta gastuen egoera, eta elkartearen jardueren garapena ezagutzekoa, betiere datu pertsonalak babesteko araudian aurreikusitakoaren arabera.

4) Batzar Nagusian hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzekoa, eta eskubide horren ordezkaritza beste bazkideren baten esku uztekoa.

5) Estatutu hauen arabera elkartearen zuzendaritza-organoetan parte hartzekoa, eta hautesle nahiz hautagai izanik.

6) Indarrean dagoen legedian aurreikusitako bazkide-fitxategian azaltzekoa, eta –halakorik ego-

nez gero– elkartearen ikurra erabiltzekoa.

7) Estatutuen eta Barne-Araudiaren –halakorik izatera, eta onartzen den unean– ale bana edukitzekoa, eta zuzendaritza-organoen aurrean eskariak eta kexak aurkeztekoa.

8) Elkartearen talde-ekintzetan parte hartzekoa, eta bazkideen erabilera komunerako elementuez (egoitza soziala, liburutegiak, etab.) gozatzekoa, Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duen moduan.

9) diziplina-neurririk ezarri aurretik idatziz entzuna izatekoa, eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko informazioa jasotzekoa. Neurri horiek bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean oinarritu daitezke soilik, ez beste ezertan.

10) Edozein unetan baja ematekoa, nahiz eta hartu arren bete gabe dituzten konpromisoei bete egin beharko dituzten.

### 30. artikulua

Bazkide guztien betebeharrak dira:

a) Elkartearen helburuak lortzen laguntzea, beren jarduera boluntarioa bitarte.

b) Zuzendaritza Batzordearen proposamenari jarraiki, Batzar Nagusiak ezartzen dituen kuotak ordainduta, gastuei aurre egiteko.

e) Estatutuetatik eratorritako gainerako betebeharrak betetzea.

d) Elkarteko gobernu-organoek hartutako baliozko erabakiei men egitea eta horiek betetzea.

## BAZKIDE IZAERAREN GALERA

### 31. artikulua

Bazkide izaera galdu egingo da kasu hauetan:

1. Heriotzagatik.

2. Elkartea uzteagatik, norberaren borondatez, presidenteari zuzendutako idatziaren bidez adierazita.

3. Elkartea uzteagatik, kasu hauetakoren batengatik Zuzendaritza Batzordeak erabakitako zigorraren ondorioz: estatutu hauetatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak balioz hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak haustea, nahita, larriki, eta behin eta berriro.

## ZIGOR-ARAUBIDEA

### 32. artikulua

Zuzendaritza Batzordeak bazkideek zigortu ahal izango ditu, estatutuak edo Batzar Nagusiak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriro hausteagatik.

15 egunetik hilabetea bitarte bazkide-eskubideak kentzetik elkartetik betirako kanporatzerainokoa izan daiteke zigorra, betiere 34. artikulutik 36.erainokoetan (biak barne) aurreikusitakoaren arabera. Ondorio horietarako, presidenteak ikerketa egiteko erabakia hartu ahal izango du, zigorgarri izan daitezkeen jokabideak aztertzeko. Idazkaritzak bideratuko ditu ikerketa horiek, eta Zuzendaritza Batzordeari neurri egokiak hartzeko proposatuko dio.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordearen eskumena izango da, eta ezarri aurretik interesdunari entzun beharko dio. Zigortzeko arrazoia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsoa aurkeztu ahalko da Batzar Nagusiaren aurrean, 29. artikuluan aurreikusitako ekintzen kalterik gabe.

## 33. artikulua

Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, estatutu hauetatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak balioz hartutako erabakietan ezarritakoak nahita, larriki eta behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, presidenteak aurretiazko eginbide jakin batzuk egitea agindu diezaioke idazkariari, beharrezko informazioa jasotzeko. Informazio horren aurrean, presidenteak jarduerak artxibatzeko agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

## 34. artikulua

Kanporatzeko zigor-espedientea irekitzen bada, idazkariak – aurretiaz egintzak egiaztatuta– idatzi bat igorriko dio interesdunari, leporatzen zaizkion salaketen berri emateko. Salaketei erantzuteko, bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu 15 eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen hurrengo lehen bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta bertan hartuko da erabaki egokia, quoruma honekin: bertaratu diren kideen erdia gehi bat.

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, esanez, hurrengo ezohiko Batzar Nagusian horren aurkako errekurtsoa aurkeztu ahal izango duela, eta hiru hilabeteren ondoren deialdirik egin ezean, errekurtsoa nahikoa izango da berariaz horri buruz egiteko. Bien bitartean, Zuzendaritza Batzordeak dagokionari bazkide-eskubideak kentzea erabaki ahal izango du eta, Zuzendaritza Batzordeko kidea bada, karguaren jarduna utzarazi beharko dio.

Kanporatzeko espedientea Batzar Nagusiaren aurrean aurkeztuz gero, idazkariak haren laburpena idatziko du, Zuzendaritza Batzordeak interesdunaren idatziaren berri eman ahal izateko Batzar Nagusiari, azken honek erabaki egokia hartu ahal dezan.

## 35. artikulua

Banantze akordioa –beti arrazoitua–, interesdunari jakinaraziko zaio, honek, dagokion eskubideak baliatuz, Auzitegira jo ahal dezan, hura Legediarekiko edo estatutuekiko aurkakoa dela jotzen badu.

## 36. artikulua

Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan, berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako-bete gabe dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.

# LAUGARREN KAPITULUA

## GIZARTE ONDAREA ETA AURREKONTU ERREGIMENA

### 37. artikulua
Elkartearen gizarte ondarea 345€-koa da.

### 38. artikulua
Elkarteak gizarte jardueren garapenerako aurreikusten dituen baliabide ekonomikoak ondorengoak izango dira:

a) Batzordeak adierazten dituen aldizkako kuotak.

b) Dagozkion ondareen eta eskubideen produktuak, hala nola lege arloaren arabera jaso ahal izango lituzkeen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.

e) Elkarteak, Zuzendaritza Batzordeak estatutu helburuen barruan garatzea adosten dituen legezko jardueren bidez eskuratzen dituen diru-sarrerak.

Ekitaldi asoziatibo eta ekonomikoa urtean behingoa izango da eta bere ixtea urte bakoitzeko abenduaren 31n egingo da.

Elkarteak eskuratutako errekurtsoak ezin izango dira bazkideen artean banatu.

# BOSGARREN KAPITULUA

## ESTATUTUEN ALDAKETA

### 39. artikulua
Estatutuen aldaketa Zuzendaritza Batzordearen ekimenez egin ahal izango da, edota haren erabakiz, bazkide inskribatuen bi herenek eskatzen badute. Edonola ere, bi kasuetan Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako Batzorde Txostengile bat izendatuko du, aldaketa-proiektua idatzi dezan, hark emandako jarraibideen arabera; Zuzendaritza Batzordeak berak jarriko du proiektua amaitzeko epemuga.

### 40. artikulua
Adierazitako epean aldaketa-proiektua idatzi eta gero, presidenteak hurrengo lehen Zuzendaritza Batzordearen gai-zerrendan sartuko du. Batzorde horrek proiektua onetsiko du, edo Batzorde Txostengilera itzuliko du, berriro aztertzeko.

Onartua izango balitz, Zuzendaritza Batzordeak ospatzen den hurrengo Batzar Nagusiaren gai-zerrendan barne hartzea adostuko luke, edota xede horietarako antolatzea erabakiko luke.

### 41. artikulua

Batzordearen deialdiari estatutuak aldatzeko testua erantsiko zaio, bazkideek idazkariari egoki iruditzen zaizkien zuzenketak helarazi ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Nagusiari helaraziko zaizkio, betiere idazkariak saioa egin baino zortzi egun lehenago eskura baditu.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka ahal izango dira, betiere idatziz, eta beste testu-aukera bat emanez. Zuzenketak bozkatu ondoren, Batzar Nagusiak estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta honek hirugarrenen aurrean eragina izango du soilik Elkarteen Erregistro Nagusian inskribatzen den unetik aurrera.

## SEIGARREN KAPITULUA

## ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

### 42. artikulua

Elkartea desegingo da:

1. Bazkideen borondatez, horretarako antolatutako ezohiko Batzar Nagusian borondate hori adierazita, eta bertaratuen gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin.

2. Beste elkarteren batek bereganatu egin duelako, edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako, aurretiaz Batzar Nagusiak hala erabakita.

3. Legez ezarritako pertsona bazkideen kopuru minimoaren gabeziagatik.

4. Epai judizial irmoa batek elkartea desegitea agintzen duelako.

5. Gizarte helburuak bete ezin izateagatik.

### 43. artikulua

Elkartea desegiten bada, erabakia hartu duen ezohiko Batzar Nagusiak Kitapen Batzordea izendatuko du, Zuzendaritza Batzordeko hiru kide osatua, une horretan dauden funtsez arduratzeko.

Bazkideekiko eta hirugarrenekiko elkartearen zorrak kitatu ondoren, geratzen den elkarte-ondarea –geratzen bada behintzat– entitate humanitarioren bati edo irabazi-asmorik gabeko antzeko ezaugarriak dituen bati emango zaio.

## AZKEN XEDAPENAK

LEHENA.- Estatutu hauek, Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak –zeinek bere eskumenen esparruan– hartutako baliozko erabaki bidez aldatuko dira, 5. kapituluan aurreikusitakoarekin bat.

BIGARRENA.- Estatutu hauek garatzeko asmoz, Barne-Araudia onartu ahal izango du Batzar Nagusiak, baina horrek ez du inolaz ere estatutuetako aginduak aldatuko.

# ESTATUTOS DE DMD-DHE EUSKADI

## CAPÍTULO PRIMERO

### DENOMINACIÓN

#### Artículo 1

Los presentes Estatutos de la Asociación sin ánimo de lucro ASOCIACIÓN DMD-DHE DERECHO A MORIR DIGNAMENTE-DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA, de Euskadi nº de Registro AS/G/09652/2002,constituida con fecha 27 de octubre de 2001 e inscrita con fecha 19 de febrero de 2002, han sido modificados de conformidad con lo establecido en la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi y la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación, de acuerdo con lo establecido en los artículos 9 y 10.13 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco.

Dicha Asociación se regirá por los preceptos de las citadas Leyes de Asociaciones, por los presentes Estatutos en cuanto no estén en contradicción con la Ley, por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos de gobierno, siempre que no sean contrarios a la Ley y/o a los Estatutos, y por las disposiciones reglamentarias que apruebe el Gobierno Vasco, que solamente tendrán carácter supletorio.

### FINES DE LA ASOCIACIÓN

#### Artículo 2

Los fines de esta Asociación son:

a) Defender el derecho de toda persona a disponer con libertad de su cuerpo y de su vida, y a elegir libremente el momento y los medios para finalizarla. Derecho a morir dignamente.

b) Defender los siguientes derechos de la ciudadanía al final de su vida:

l. A la Información clínica.

2. A decidir libremente entre las opciones clínicas disponibles.

3. A la intimidad.

4. A negarse al tratamiento y al respeto de las decisiones adoptadas libre y voluntariamente por el/la paciente.

5. A expresar anticipadamente su voluntad en el Documento de Voluntades Anticipadas.

6. Al alivio del sufrimiento, accediendo a una medicina paliativa de calidad que sea respetuosa con sus valores y creencias.

7. A evitar tratos inhumanos o degradantes, recurriendo a la sedación paliativa (morir dormido) si esa es su voluntad.

c) Defender la legalización de la eutanasia y el suicidio médicamente asistido para personas que sufren enfermedades incurables o gravemente invalidantes y libremente desean liberarse de un sufrimiento que viven como insoportable

d) Acompañar al socio/a al final de su vida.

Para la consecución de dichos fines se llevarán a cabo, previo el cumplimiento de los requisitos legales establecidos, las siguientes actividades:

a) Difundir en la sociedad los fines de la Asociación DMD-DHE a través de los medios de comunicación y Web, promoviendo un debate social amplio y plural, sin miedos ni limitaciones coyunturales.

b) Colaborar con otras Instituciones, plataformas y colectivos ciudadanos, tanto nacionales como Internacional es.

c) Impulsar actividades y captación de nuevos socios y socias mediante jornadas, seminarios, foros de debate, publicación de boletines informativos, Internet.

